

## MU eta Nazioarteko MCC hitzarmenari esker, ikasleek, taldearen atzerriko delegazioetan egin ahal izango dituzte praktikak

2008/05/07

Mondragon Unibertsitateak eta Nazioarteko MCCek sinatu berri duten lankidetzeta-hitzarmenaren arabera, unibertsitateko ikasleek euren praktikaldiak eta karrera-bukaerako proiektuak MCCk atzerrian dituen delegazio korporatiboetan egin ahal izango dituzte.

Hitzarmenaren helburua unibertsitateko ikasleari lan-giroan jarduteko eta haien prestakuntza enpresetako atal operatiboetan osatzeko aukera ematea da. Aukera horrek ikaslearen prestakuntzaren onerako izango da, inondik ere. Hitzarmenaren iraupena hiru urtekoa izango da eta, gehienez, sei urteraino luzatzeko posibilitatea jasotzen du .

Hitzarmenaren bidez garatuko diren praktika-programak eta karrera-bukaerako proiektu-programak Mondragon Unibertsitateko ikasketa-planaren osagai izango dira eta ikaslearen prestakuntzari lotutako aktibitateetan aplikatuko dira. Fakultate bakoitzeko arduradun bat izendatuko da praktika-programak eta proiektu-programak garatu eta betetzeko, eta Nazioarteko MCCek ere beste bat izendatuko du helburu berarekin. Halaber, zentroak tutore bat izendatuko du eta Nazioarteko MCCek instruktore bat. Praktikaldiaren ostean, burututako aktibitatearen eta haren emaitzaren ebaluazio-txostena egingo dute bi arduradunek.

MCCk nazioarteko sei delegazio ditu, hain zuzen Brasilen, Errusian, Estatu Batuetan, Mexikon, Txinan eta Indian. Haietan guztietan 50 bat lagunek dihardute lanean. Haien lana merkatu-ikerketak, prospekzio-analisiak, negozio-aukeren analisisa eta kooperatibak atzerrian ezartzeko ikerketak egitea da. Hemendik aurrera, hitzarmenaren ondorioz, Mondragon Unibertsitateko ikasleek eginkizun horietan lagunduko dute.

